

## KAIOA

Udazkeneko goiz batean, urtero bezala, kostaldera joan ginen eskolakoak. Karramarro Eguna esaten genion txangoari. Izan ere, egun horretan itsasbazter batera hurbiltzen ginen busez, eta hango kala harritsu batean, harkaitzen arteko putzuetan agertzen zen mundu zoragarria gozatzen genuen: karramarro mota ezberdinak, algak, olagarrotxoren bat, ezkirak, itsas-kirikinoak, arraintxoak, anemonak, itsas-izarren bat... Hori bai, marea behera ezinbestekoa izaten zen halako putzuetara heltzeko. Eta eguna ondo baino hobeto amaitzeko, eguraldiaren arabera, jakina, bainatu ere egiten ginen.

Egun hartan, putzuetan salabardoekin ari ginela, tiroak entzun genituen labarren gaineko zelaietatik.

Uso pasea dago –esan zuen irakasleak– gaur hego haizea dabil... eta honantz gentozela ehiztariak ikusi ditut inguruotan.

Tiro gehiago entzun genituen goizean zehar, hala ere ez genion kasu gehiagorik egin... kaio hura ikusi genuen arte.

Begira! –esan zuen batek– begira kaio hori!

Eta orduan kaio bat ikusi genuen, hegan baino, jausten, gure aurreko harkaitz batzuen aldera.

Goazen! –esan zuen beste batek– Kaio hori ez dago normal.

Hara heldu bezain laster konturatu ginen kaioa zaurituta zegoela, hego batean odola zeukala. Zaurituta, eta beldurtuta zegoen.

Antza –esan zuen irakasleak–, ehiztariren batek tiro egingo zion usoa zelakoan.

Kaioak alde egin nahi zuen... baina ezin. Zauriak eragotzi egiten zion hegan egitea.

Hil egingo da –esan zuen batek.

Norabait eraman beharko genuke.

Nora, baina?

Eskola ondoko baserrian bizi dena sendagile izandakoa da. Berak jakingo du zelan osatu zauria. Ez da zaila izango.

Denok irakasleari begira jarri ginen, baimenaren eske.

Eta zauria sendatu eta gero, non osatuko da? Ezin izango du bere bizimodua egin, ez duzue uste?

Isilik geratu ginen guztiok, zer esan jakin gabe.

Eskolan bertan izango dugu behar besteko egunez... –gehitu zuen batek irakasleari begira– Posible da?

Ba –hasi zen irakaslea zalantzaz–, zer esango dizuet... ez da eskola batean egon daitekeen maskota bat, baina... tira, bai, zergatik ez!

Oihu baten hasi ginen guztiok, pozarren.

Kontu handiz toalla batean bildu genuen. Kontu handiz, bai, karraka hasten zelako minez eta beldurrez, eta saiatzen zelako mokoaz bere burua defenditzen. Ez zen erraza izan, baina azkenean toallan bildu ostean motxila ireki batean sartu genuen. Barregarria zen bere burua handik ateratzen ikustea.

Egun hartan bertan eraman genuen sendagilearengana. Ez zuen inongo trabarik jarri, kontrakoa, zoriondu egin gintuen.

Kaioa han utziz gero –esan zigun–, hil egingo zen, argi eta garbi. Ondo baino hobeto egin duzue.

Egunero kaioari sendaketa zelan egin behar genion esan ondoren, eskolara bueltatu ginen.

Hauxe izango da hurrengo egunetan zure etxe berria –esan zion batek kaioari.

Kaxa handi batean jarri genuen, trapu zaharren artean. Ura eta ogi puska batzuk ere ondoan.

Hurrengo egunetan denok ekartzen genion etxetik janari apur bat, bazkaritik edo afaritik soberan geratutakoa, normalean arrain zatiak eta halakoak.

Batek bestelako gauza pare bat ere ekarri zizkion: pelutxe bi, ahate bat eta ostruka txiki bat.

Horrela ez da bakarrik sentituko –esan zigun halako pena sentimendu batez.

Barregarria zen kaioa bi pelutxe horien artean guri begira, harrituta bezala.

Handik astebetara nahiko osatuta zegoen kaioa, eta eskolan hasi zen handik eta hemendik ibiltzen. Adibidez, egun batean eskolara sartu berri eta harrapatu egin genuen arrainontziko koskan arrain laranja bat mokoan zuela. Beste hirurak ordurako falta ziren, argi eta garbi kaioaren gosaria izan ziren. Kaioak gu ikusi eta goiko apaletara alde egin zuen, eta, jakina, loreontzi bat eta bestelako poteak lurrera jausi eta denak kraskatu egin ziren. Garbitzaileak errieta galanta bota zigun, kaioa, azken finean, gure ardurapean zegoen eta.

Beste batean, plastikako txokora sartu eta margo pote guztiak bota zituen, lurrean halako ortzadar zoro eta erraldoia sortuz. Hura ere guk konpondu behar izan genuen.

Ume txikien txokora ere sartu zen, eta hor panpina eta pelutxe guztiak jostailu bezala ibili zituen eta, jakina, denak urratuta, hondatuta, bururik gabe... eta gu oihuka, eta bera guri begira, agian pentsatzen zuen abesten ari ginela.

Horrelako beste pasadizo batzuk gertatu ziren, eta azkena, jangelan izan zen. Inor ez zegoela aprobeztatuz, bazkariko lapikoetan mokoia sartzeaz gain, hankak ere sartu zituen. Lurrean, apaletan eta nonahi ikus zitezkeen bere lorratz koipetsuak. Bazkariko saltsa eskolan zehar goitik behera. Orduan bai entzun genituela bestelako oihuak... eta mehatxuak.

Eskolako guztiak, irakasleak, jantokikoak, garbitzaileak... den-denak haserretu ziren. Normal, pentsatu genuen, gure kaio maitea larregi pasatu da...

Eta egun hartan erabaki genuen, maite bagenuen ere, kaioak alde egin behar zuela eskolatik.

Ulertu behar duzue hau ez dela bere lekua –esan zigun irakasleak–, bere leku naturala itsasbazterra dela. Han pozik biziko da... eta gainera harro egon behar duzue bere bizitza salbatu zeniotelako, ez duzue uste?

Baietz egin genuen buruaz.

Handik hiru egunetara berriro jarri ginen kostaldera bidean, kaioa hartu genuen kalara. Nahiko isilik egin genuen bidaia, izan ere kaioarekin azken eguna izango zen.

Ez gaitezen hain triste jarri –esan zuen batek–, azken finean, bizitza salbatu diogu eta berriro bueltatuko da bere lekura, bere lagun artera. Pozik egon beharko genuke, ezta?

Egun hartan, kostaldean, hotza egiten zuen, zerua garbi eta haize barik. Harkaitzen aldera jaitsi ginenean harri zapal handi baten gainean utzi genuen kaxa barruan. Hiru-lau segundo kostatu zitzaion egoera berriaz ohartzea, hau da, berriro itsaso ondoan libre zegoela. Animatzen hasi ginen handik irteteko... eta halako oihu zorrotz bat egin ostean, agur antzekoa bezala, hegan hasi zen, ondoko labarren aldera.

Agur, agur, ondo ibili! –esan genion denok, eta baten bati malkoren bat ere atera zitzaigun.

Bueltan, berriz, halako isiltasun baten ostean, ozen-ozen abesten jarri ginen, itsaso aldera begiratzen genuen bitartean.